

Erakunde sustatzaileek gizarteratzeko eta laneratzeko
enprekin eta Gizatearekin duten konpromisoa



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkartea

Argitalpenaren laguntzailea:



Erakunde sustatzaileek gizarteratzeko eta laneratzeko enprekin eta Gizatearekin duten konpromisoa

2009ko abendua

Gizatea

Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco

Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte

Ekain Kobak 3, 1 • 48005 Bilbo

Tel.: 944 160 566 • Faxa: 944 156 319

gizatea@gizatea.net

www.gizatea.net

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Institutua

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



Aitortu-Ez merkataritzarako-Lan eratorririk gabe 3.0

Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta. Baimen osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/deed.eu>


Lan-merkatara sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea da Euskadiko Gizarteratzeko eta Laneratzearen Enpresen egitekoa. Enpresa hauek, kalitatezko zerbitzuak eskaintzeaz gain (horretarako, behar diren pertsona eta baliabide teknikoak erabiltzen dituzte, beste edozein enpresa-modalitatetan egiten den bezala), desabantaila sozialean dauden pertsonen aukera ematen diete enplegu normaletan sartzeko, laguntzako fase baten ostean eta lanpostu batean arituz. Gizarteratzeko eta Laneratzearen Enpresek zeregin honen garapeneraren alde egiten dute, euren ahaleginak eta baliabideak erabiliz; horretarako *dira* eta horretarako *daude*.

Gizarteratzeko eta Laneratzearen Enpresen Erakunde Sustatzaileek gizarte justuagoa lortzeko egiten dugu lan, gizarteratzeko eta laneratzearen enpresak gizarte eta lan arloko bazterketaren aurkako tresna gisa sustatuz; izan ere, modu

horretan, lanpostu normaletara sartzeko aukera ematen dute.

Ekonomia solidario eta alternatiboari buruzko ikuspegi konpartitu batetik egiten dugu lan, eta kontuan hartzen dugu ekonomia mota hori sustatzen duten ekimenek gizarteratean duten lekua. Gainera, arreta berezia jartzen dugu gure gizarteratean bazterketa sorrarazten duten egiturak eraldatzeko lanean ari diren ekimenetan.

Gizarteratzeko eta laneratzearen enpresen sustatzaileak garen aldetik, geure egiten ditugu Etika Kodean jasotako ondorengo konpromisoak, denak ere Gizatearen printzipio eta balioetan oinarritutakoak. Izan ere, ondo erakusten dute zein den lortu nahi dugun aintzatespena, gizarteratzeko eta laneratzearen enpresen sustapeneraren arloan egiten dugun lanagatik.



→ Parte-hartzea

→ Gizarteratzeko eta laneratzearen enpresen erakunde sustatzaileek badakigu ekonomia solidarioaren ereduen sortzaileak gara, eta gizarteratzeko eta laneratzearen prozesuan dauden pertsonen garapeneraren gunea izatearen erantzukidetasuna onartzen dugu, pertsona horiek lanpostu normaletan sartzeko babesa izateaz gain.

→ Irabazi asmorik eza

→ Gizarteratzeko eta laneratzearen enpresak ez ditugu euren sorrerako helburuak ez diren beste xede batzuetarako erabiltzen, eta gure asmoa ez da egiten duten jarduerari esker irabaziak lortzea. Gizarteratzeko eta laneratzearen enpresak ez dira kostuak legez kontra merkatzearen tresna.

→ Erantzukidetasuna

- Erantzukizun partekatuz jokatzeko dugu Gizatearekiko harremanetan. Hori dela eta, ez dugu Gizatearen lankide izateagatik erabileraren desegokirik egiten, gure interes propioaren mesedetan (irudi arrazoiengatik edo beste edozein arrazoiengatik), baldin eta hori kaltegarria izango bada Elkartearentzat.
- Erantzukizun partekatuz jokatzeko dugu gerentziarekiko eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan kontratatutako langileekiko, eta babesa eta konfiantza ematen diegu euren lanean. Gainera, konpromisoa erakusten dugu lanaren kudeaketari dagokionez.
- Sentikortasun berezia agertzen dugu gizarteratze eta laneratzeko prozesuetan dauden eta desabantaila sozialik larrienen egoeretan dauden pertsonakiko. Hori dela eta, arau eta protokolo berezien garapena sustatzen dugu, euren beharrezkoak behar bezala asetzeko, eta, modu horretan, euren gizarteratze eta laneratzeko prozesuei dagozkien erantzukizunak hobeto har ditzaten.

→ Aukera berdintasuna

- Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan kontratatutako langileen aukera-berdintasuna zaintzen dugu, lanera sartzeko orduan, trebakuntza eta sustapen profesionaletan, eta euren lan-baldintzetan.
- Ekintza positiborako neurriak hartzen saiatzen gara, eta gauza bera egiten dugu baliabideak eskuratzeko berdintasunezko tratuarekin eta baliabide horiekiko inpartzialtasunarekin ere.

→ Genero berdintasuna

- Gure asmoa da jatorri sexista duten bazterketa guztiak murriztea eta ezabatzea, sustatzen ditugun enpresen jardun osotik eta Gizatearen inguru osotik.
- Lan-merkatutik urrunen dauden emakumeen aldeko neurriak sustatzen ditugu, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresei etekina atera diezaieten.

→ Pertsonalizazioa

- Laguntza-plana betetzeaz arduratzen gara; izan ere, modu horretan, arreta pertsonalizatu, individualizatu eta kalitatezkoa bermatzen da, Gizatean bazkidegoko enpresetako gizarteratze eta laneratzeko plazaren bat okupatzen duten pertsona langileei dagokienez.
- Gure ustez, prozesu pertsonalizatu hau pertsona bakoitzari bideratutako praktikekin oinarritu behar da, ibilbide generikoen diseinuetatik ihes eginez, eta pertsona bakoitzaren zailtasunak eta gizarte zein lan arloko ibilbide eta testuinguruak kontuan hartzen ez duten erantzunak edo ekintzak bazterrean utziz.

→ Lankidetzak

- Lankidetzan ari gara, Gizatearen balio eta printzipioak betetzeko asmoz. Balio eta printzipio horiek hedatzen ditugu, eta inguruarekiko konpromisoaren eta sentsibilizazioaren helburuen alde egiten dugu.

→ Inguruarekiko konpromisoa

- Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek inklusiorako oinarri gisa duten balioa aldarrikatzen dugu, une bakoitzean egokiak diren ekintza sozial eta politikoak erabiliz.
- Instituzio ofizialek, erakundeek eta erakundeen federazioek bazterketa egoeran dauden pertsonak laneratzeko egiten duten ahalegina sustatzen eta babesten dugu, gizarteratzearen sustapenaren aldeko iritzia publikoa sorrarazteko.
- Gizatearen inguruko praktika ororen helburua da gizarteratze eta laneratzeko prozesuetan dauden pertsonen eskubide-berdintasunak saihesten dituzten bazterketa guztiak murriztea eta ezabatzea, eta helburu hori bete dadin saiatzen gara.